

Gure zorionak Migel Indurain'i

Ongi mereziak ditu. Aurtengo onekin laugarren aldiz irabazi bait du Frantzi'ri urtero txirrindulariek eman oi dioten inguru-bira.

Gutxi dire berak bezala inguruketa ori urtez-urte bata bestearen atzetik jarraian lau aldiz irabazi duten txirrindulariak: Bi bakarrik: Jacques Anquetil frantziarra eta Eddy Merckx belxikarra. Pozik ikusten dugu bi laisterkari aundi oien artean Migel Indurain euskotarra.

Aundia bait da txirrindularitza Migel Indurain bera ere.

Alatagutziz ez zaigu zillagi, egun auetan izparringi batean irakurri aal izen dutan bezala, munduan izen den aundiena bera denik esatea. Izen diteke, agian. Beñio oraindik ez da. Bere neurritz eta bakoitzea bere tokian gauzak eta gizakumeak!

Aurretik bait ditu oraindik gure Migel'ek Anquetil eta Merckx.

Anquetil'ek BOST aldiz irabazi du Frantzi'ko inguruketa ori (4 jarraian: 1961, 1962, 1963, 1964. Bosgarrena, leenago, 1957'an); Bi aldiz Itali'koa (1960, 1964) eta BEIN Espaini'koa (1963).

Anquetil'en mallara, bai, bereala iritxi diteke Indurain. Ortarako naikoa luke datorren urtean berriro Paris'en irabazle sartzea.

Ta, ori lortzeko asmoa badula esan du berak. Eta lortuko du. Itza betetzen badakin gizasemea bait da Indurain. Benetako euskalduna, ortan beintzet. Itza, itz! Paper guztiak beñio balio geiagoko gauza. Itza!


Orretxegatik ere ongi mereziak ditu atarrabitarrak gure zorion guztiak. Gizartean itza betetzen jakiteak, Frantzi'ri lau milla ingurupen garaille emateak beñio geiago balio bait du.

Laister utzi dezake bere atzetik Anquetil. Eta utziko duela iduritzen zaku.

Eddy Merckx'eri aurea artzea, bai, zallagoa gertatuko zaio noski. Merckx omen da ba, bi kurpillen gañean azkar ibiltzeko sortu den mutillik yayoena.

Amerikarrak illargira iritxi zireneko artan zebillen Eddy Merckx Europa'ko bideetan laisterka. Ez dut esan nai Merckx'en laisterketa aiek illargira iristearekin kidatu ditezkeenik. Baña ez dut azturik utzi nai urte aietan Amerika'n bertan sortu zen eta an agoz-ago ibilli zen izkirimiri bat.

Astrong eta bere bi lagunak illargira iritxi zirenean, an omen



Migel Indurain'i.

zeukaten zai Eddy Merckx bere bizikletaren alboan eserita. «Kosta zaizute iristea, mutillak!» esanez eman omen zien ongietoria.

Igoko ote da Miguel, Eddy'ren mallara? Zaila izengo zaio. 30 urte beterik, adiñez aurrera bait dijoa. Baña saiatuko da. Eta lortzen ez ba'du ere ez da orregatik larrituko. Gizon egizalea eta apala bait da Migel: gauzak, eta gertakizunak diren eta datozen bezala patxadaz artzen badakiena.

Ta orregatik bai; orragatik bai merezi ditula Migel Indurain'darrek gure goratzarre guztiak! Bere mallara iristea lortu duten gizakumeak aski arroak izeten bait dire

maizenik.

Egin zaion omenketa zer iduritu zaiten? Ederra erriak egin diona. Geiegikeriz nabarmenegia irrati ta izparringietakoa.

Erriak edeki jokatu du. Jaia nai zuen, eta pozik baliatu da bere adiskide baten garaitza bikañaz, alaiki jai egiteko.

Eta Migel bera izen da beste iñork beñio txukunago jokatu duena. Bein beñio geiagotan aritu bait da aurretik esaten ez dula geiegizko istillu-rik nai.

Jatorra mutilla! Jaso bitza gure txaloak. Eta biotzetik damaizkion zorionak.

Latiegi'tar Bixente

Rikardo Baroja ikastetxea bera'n

Bera'n, Rikardo Baroja ikastetxean, euskara ematen ari zirela, jakin nuen. Ikustera urbildu nintzen. Jose Maria Rodriguez Galdona zuzendariarekin elkarizketa egin ondok berri aunitz jaso nituen.


Ikastetxea berria da, 1979'garren urtean egiña. Len Eskolapio delako ikastetxean zeuden.

1983'garren urtean euskal eredu -D sartu zuten. 1994'garren urtean 168 ikasle dituzte, iru urte-tik amalau urteak arte. Geienak Beratarrak dire; 12-14 urtekoak Etxalar eta Yanzi'tik datorzkie baita ere. 122 ikasle daude sartuak -D ereduari; -A ereduari berriz 46 ikasle. Amabi irakasle dituzte; amar nafarrak, iru Beratarrak. Aurren joera errex ulertzekoa da; ikastetxean euskara ta erdara egi-ten dute, karrikan berriz erdara geiago.

Iru elburu dauzkate orain ikastetxean. Bat; irakaslen artean dena euskaraz egitea. Bi; ikasle al den geien bat euskaraz mintzatzea. Iru; aurren gurasekin, naiz erderaz egin geienak, euskara sartzen ailegindu. Izkuntza ta publikotasuna zaindu bearra daukate.

Berexitasunen artean gai auxek izan ziren aipatuak: aur tipiekin euskaraz aunitz abestu, aldizkaria «Kuskus» geiena euskaraz argitaratu (berreun ale ateratzen dituzte), aurrak euskal antzerkia ikustera Zizurkil'era eraman, Urrun'go ikastetxera txango ta arremanak eukitzeko joan, Bera'ko auzoak ezagutu ta mapa bat egin. Eziketa aldetik euskara sartzen ari dire egiñetan, baita ere Euskalerria eza-gutzen.

Nor dugu ikastetxeko zuzendaria? Jose Maria Rodriguez Galdona. Donostia'n, 1951'garren urtean jaioa da. Aita Errioxa'koa du, ama berriz baserritarra Arrona'n jaioa, Guipuzkoarra ain zuzen. Magisterioa Donostia'n egin zuen. Emaztearen aita Bera'ko Gorostepal baserrikoa du. Bi aur ditu. Euskara, amaren Eyxerria delako baserrian (arrona'n) ikasi du. Aurrak ikastetxean euskaraz mintzat-



Jose aria Rodriguez Galdona.

zen entzutean, gero ta geiago sortu zitzaion ilasteko gogoa. 1987'garren urtean euskal ikastaro berexia egiten du Doneztebe'n; oporrek artzen ditu, soldata ematen diote ta urte osoa euskara lantzen dabil. Aurren zuzendariaren semea, Iban Rodriguez Errandonea, Nafarroa'ko jaurlaritzak euskal ipui batengatik saritu du. Ori jakin eta, irriparez zegoen aita.

Antxen ikusi nuen adiskide zarra Karmen Lanz irakaslea, Beratarra, Jose Lanz'en alaba. Bere amak euskara erakatsi ziola dio berak. 1973'garren urtean euskal irakasleentzat lendabiziko ikastoara Iruñā'n egin zenean, antxen zegoen Karmen lanz. Ni berriz aditza erakastera eraman ninduten. Karmen'ek Leiza'ko ikastolan urte aunitz egin ditu irakasle bezala. Gero bertan, ikastetxe publikoan jarraitu zuen. Garzia Dedios gizon ospetsuakin ezkondu zen. Aurren semea euskal ipui batekin saritu zuten Iruñā'n.

Bertze irakasle gaztea, Marisol Taberna ezagutu nuen, Gorritxene'n Alkaiaga'n sortua. Irakaskintzak Donostia'n egin zituen. Maite ditu aurrak, baita euskara ere. «Gurasoak, orain, berak ez dutena ikasi, beren aurrak egitea alegintzen dire», dio.

Era bat aurrera dijoa euskara Bera'n.

Latxaga

Santioak

Udara badoa eta Santioak ere goan dira, elizondarrek ederkixko ospatu dituztela beren herriko bestak. Aurren Santioak astelenakin ginuelakoz bezpera igandez ginen eta hortaz larunbatean nabarri zen besta giro useña. Bestak holaxe goan dira:

23-an, atsaldeko bortzetan txirrindula lasterketa gezetxoentzat. Atsaldeko 6,30-etan fubola. Osasuna 3 Baztan 0. Yende aunitz bildu zen eta partida aski ederra, yendea kontent zegoen. Larunbatean ere Jaialdia Baztango Dantzari Taldeak antolatuturik.

24-ean. Igandea eta Santio bezpera. Goizean txirrindulariak, «Euskadiko Txapelketa» afionados delako mallakoen artean. 150 kilometro. 277 txirrindularik hartu zuten parte eta hoietarik 52 bakarrik bururatu zuten lasterketa. Irabaztalea: Igor Flores Galartza arabarra.

24-ean ere eta eguerdiko 12-etan, herriko alkateak bota zuen su-ziria Santioari hasiera emanik. Ondotik soñulariak Elizondoko karrikan barna.

Atsaldeko 6-etan Baztango Dantzari Taldearen dantzaldia herriko plazan. Gero urteroko Salbea elizan, Hilario Eslaba ospetsuaren Salbe ederra gandeneko 90 urte hoketan Elizondoko parrokan Santio bezperaren kantatzen dena. Baita ere Santiagoren Ereserkia urtero kantatzen dena, Yende aunitz elizkizunean eta Elizondoko kanta-

riak ere oso ongi. Santio egunean urteroko Meza Nagusia, Elizondoko kantariekin. Udaletxeko Agintariekin eta eliza bete bete. Meza ondoren urteroko Ohorezko Mutil-Dantzak. Ondotik Elizondoko Herriko Alkate izan diren guziei ohorezko oparia eman zabeten «pañuelo» baztandarra lepoan ezaririk. Kordion kontzertua ere izan ginuen Iparragirre maixuaren Taldeak emana.

Beste ekintza gehiago ere izan ditugu: Pilota pariduak bi egunez, eskuz eta erremontez. Kantarioak Jojo eta Erramuntxo, jubilatuen bazkaria, zikiro-yatea, dantza eta soñu plazan, Baigorriko gaiteroak eta txaranga aunitz ere. Aurtengo mutil-dantzak ederrak izan dira, gazte eta adinekoak ere lerroan gure baztandar dantzari ohore egin. Baita ere mutil-dantzen ondotik egin diren zortzikoak eta «Gaitak» neska-mutillak zaletasun osoz lotzen zirela beren sasoia erakutsirik.

Gure goresmenak mutil-dantzan aritu diren guziei eta nere zorionik maitekorrenak Agustín Eraso txistulariari, erakutsi du Maurizio zenaren eskolako dela eta mutil-dantza guziak ongi menderatuak dauzkala. Jarrai gaitezen bide hor-tatik gure ohiturak zaintzen eta euskal zaletasunak iraun dezan guren bihotzetan. Elizondo bestak gan dire, «bakea ta bi sos».

M. Izeta

Berri ona

Nun bizi gera?

«Sinismen duenak badu betiko bizia» (Jn.6,41-51)

ATEISMOA da egungo problemarik aundiena. Aundiena bakarrik ez, geitzen doana baizik. Antziña ez omen zen ateorik; noski, bakarren bat edo beste, bai. Arazoa berria da.

Ateismoa sartaldeko edo mendabaldeko krisiak sortu omen du. Izan zen «Nun da Jainkoa? -galdetu zuen (eroak)». Nik errango dizuet: Guk ik dugu: zuek eta nik! Asesinoak gela!» idatzi zuenik.

Mundu bat besterik ez dela, egia da; eta mundu orretan bizi da gizakia, Jaungoikoaren salbazioaren deia entzuten duen gizakia. Dei ori, ordea, ez da kanpotik entzuten dugun aots arrunta, guretariko bakoitzaren barruak astintzen eta irakitan jartzen digun deia da.

Jainkoa, ateismoa, sinistea, federik ezak jotako mundua... ez ote dira lasai eta ondo bizi geranon burutazio merkeak izango? Aurreko egunetako albisteak entzun eta ikusi ondoren orrisa au betetzen naiko lanak izango ditut. Ruanda-ko egoera larriak mutu uzten gaitu. Aoa itzik gabe, gogoa indarrik gabe, eskuak dar-darka. Nola gerta daiteke an geratzen ari dana?

Egoera kezagarri eta negargarri orrek txantxetako gogo guztiak uxatzen dizkio bati. Nola dezake ori

egin gaurko gizaldi traketsak eta biotz gogorak?

Jesus-ek biziaren ogia dela erraten digu: gosez eta egariz miñutuko pertsona bat iltzen da Ruanda-n. Arengan sinisten badu bizia izango dugula agindu digu Jesus-ek: erri aberatsetatik jatekoa eta botika oso berandu iristen zaizkie...

Bizi duten larrialdiari aurre egiteko 500 tonelada janari bear dituzte egunero. 55.000 milloi peza bear omen dira ango miseria apur bat arintzeko. Ori eta geiago gastatzen dugu gure txorakerietan... zer esanik ez, noski, aientzako armak egiten.

Jesus-ek zuzentzen dizkigun itzak serio eta egiaz artuko bagenitu, ziur izan, mundu au ez litzake den bezelakoa izango. Gizakiak zuzentasunaren aldeko bideak azkarrago irekiko litzuke. Gertatzen diren ainbat eriotza ez litzake gertatuko...

Fedea izatea, Jesukristogan sinistea... mundua aldatu daitekela sinistea da, Jainkoa gurekin dela sinistea da. Mai santura, jaunartzea iristen geranean, eska dezaigun benetan gizon-emnakume bakoitzaren biotza alda dezala, guk mundua obetu eta aldatzeko.

Artzalluz'tar Joxemari